



AITOR VITORIA ▶ 'EUTSI' FILMEKO ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

## «Gizartearen arazoan eta umorearen arteko nahasketa da filma»

**TOLOSA ▶** Estreinatuta berri den 'Eutsi' filman aritu da lanean tolosarra

**«GUSTURA» ▶** «Lan ona egin dugu; ikusleak zer dioen ikusi beharko da» ▶ 3

N. LATABURU



LEITZA ▶



Gizakia naturaren aurrean izeneko lana erretratu psikologiko bat da, Pako Zufiaurren esanetan. HITZA

## Pako Zufiaurren artearen ikuspuntutik, naturaren txikizioa

Torrean jarri duen erakusketa «txikizioaren inguruko alegoria» dela azaldu du autoreak ▶ 7

ANOETA ▶

## 30 zuhaixka berri landatu dituzte Kultur Astearen baitan

Zuhaitz Eguna egin zuten atzo ikastolako ikasleek; xarma, urki eta astigar berriak izango dira ur biltegia ▶ 4



Gazteak landatzen. HITZA

IMANOL ELOLA ▶ EHIZTARIA

## «Parte hartzen dugunen artean banatzen dugu harrapaturikoa»

7. Ehiza Txiki Txapelketan hartu zuen parte Altzokoak; Gipuzkoakoan ariko da eskualdeko hainbatekin ▶ 5

TOMAS URIA ▶ ERRETIRATUA

# «Nire lana oso erraza zen, edozeinek egin zezakeen, baina hizkuntzak behar ziren»

Hainbat hizkuntza, kirol eta herrialde desberdin ezagutu ditu bere bizitzan zehar; euskararen etorkizunaz baikorra da

JOXEMI SAIZAR

Zaila da Tomas Uria Irastorza (Tolosa, 1924) definitzea. Adin horretako pertsona gutxi izango dira berak adina hizkuntza jakin, berak praktikatu dituen kirolak praktikatu, ezagutu dituen herrialdeak ezagutu... dituenak. Ondo aprobetxatutako bizitza dauka. Liburu irekia da. Gai askotaz aritu da solasean: lana, ikasketak, afizioak, hizkuntzak, mundua, bizimodua....

## Zer da euskara zuretzat?

Norebere hizkuntza bihotzean, besteak buruan. Horregatik haurrei euskaraz egin izan diet mundu guztian. Ama erderaz jakin gabe hil zen. Hark erakutsi zidan. Eskolan gutxi, 10 urterekin *Xabierto* erabiltzen genuen Eskolapioetan, baina gerra ondoren denak alde batera utzi behar izan zituzten.

## Eta gerra?

Santio egunean Bordara (Andoain) joan ginen, aita hauteskundeetan abertzaleen mahaian egon zelako. Abuztuaren 15ean itzuli ginen. Aita hama-bost egun pasatu zituen etxetik atera gabe beldurrez, fusilatuak izan zirelako. Gosea ez genuen ezagutu, baina inbidia bai. Tolosan %60k alde egin behar izan genuen. Gerra aurreko abertzale batzuk txaketa aldatu zuten eta beraiek izan ziren gero okerrenak. Gero erreikisatzaileak zeuden, tolosarrak. Baina beraien izenak ezin dira esan, batzuk edo bere senideak bizi dira eta. Gure itxaropena amerikarregandik zetorren. Gero gerran Francoren alde egin zuten eta kitto. Inork ez digu barkamenik eskatu oraindik.

## Nolakoak ziren zure haurtzaroko inauteriak?

Kortxoarekin margotzen genuen aurpegia beltzez. Pierrot asko zegoen gerra aurretik, gero ez, behartsuagoak ginelako. Wenceslao Maiora Durangotik Tolosako Santa Mariara parroko gisa etorri zen. Inauteriak kendu eta Izaskunera bidea egin nahi zituen. Ezin izan zituen Karnabalak kendu. Familia aberatsek ordaindu zituzten Izaskun bideko misterioak. Lehen aldapa oso handia da



JOXEMI SAIZAR

mojek ez zutelako bidea egiteko lurra utzi nahi izan.

## Zel in izan zen Elizaren pape- ra?

Maiorekin batera Langarika etorri zen misioetara. Goizeko sei etatik altabozak jartzen zituzten martxan kaleetan eta denak esnatuta ginen. Franco altxatu zenean gotzain guztiak haren alde atera ziren. Sexuan dena debekatuta zegoen, pekatua zen, beldur izugarria zegoen.

## Nola hasi zinen ingelesa ikas- ten?

Lanagatik. Suediako inportazio eta exportazio enpresa batean hasi nintzen lanean 13 ur-

terekin. Takigrafia eta mekanografiarekin batera, ingelesa ikasi behar izan nuen, telegramak hizkuntza horretan iristen zirelako. Baldintza txarretan ikasi nuen, nire kontura: BBC irratia entzun, hura transkribatu... Lan izugarria. 49 urterekin lortu nuen Cambridgeko titulua. Hizkuntzetarako zaletasuna nintzen eta titulua atera, nahiko berandu baita ere. Eta horri esker beti izan dut lana. Nire lana oso erraza zen, edozeinek egin zezakeen, baina hizkuntzak behar ziren. Ilobei eta beti esaten

diet: «Nahiz eta garbitzailea izan, hizkuntzak ikasi, sortuko da aukera eta».

## Bernardo Atxagaren irakasle eta itzultzaile ere izan zara.

Bai. Bere lagun Jose Luis Agote asteasuarrarekin hasi nintzen mintza praktikan —berak ingelesa eta ni euskaraz alfabetatzen— eta gero Joxerekin —Bernardo Atxaga— ere bai. *Obabakoak* idazten ari zen orduan eta akatsak zuzentzen lagundu nion. Nire deskribapena egiten du liburuko ipuin batean. Ezagutzen nauenak segituan konturatu da. Bidai batzuetan lagundu nion Europan zehar. Orain bera moldatzen da eta emaztea —Axun Garikano tolosarra— du laguntzaile.

## Zer diotzu Venezuelari buruz?

12 urte egin nituen han lanean, atun arrantzako untzietan. Venezuelak dena dauka: Orinoco, meategiak, petrolio... baina alperrek dira. Beharrak minimoak dira han: janaria, arropa... Hemen konplikatua gara. Urte gutxitan 100 aldiz jaitsi da erosteko gaitasuna. Sekulako krisian bizi dira. Miseria handia dago, horregatik etortzen dira hona. Ondo hartu ditugu etorkinak, pozik daude hemen.

## Eta Panamari buruz?

Han ere urte batzuk egin nituen lanean eta bost urtez erresidentzia eta nazionalitate bikoitza izan nuen. Josetxo Laboa pasaitarra, nuntzio apostolika, oso laguna egin nuen eta haren bidez jende garrantzitsu askorekin ibili nintzen.

## Zaletasun asko izan duzu.


Golfean aspaldi hasi nintzen eta lagunak ditut Olazabal, Arruti, Iguaran... Kirolik merkeena da, ez da elitista. Margotzen ikasten aritu nintzen Miguel Angel Alvarez lagunarekin eta orain jarraitzen dut Kultur Etxean. Gimnastika ere betidanik egin izan dut. Gaztetan mendira joan nintzen. Gaur egun ere igeri, ibili eta bizikleta estatikoa praktikatzan dut. Zaintzea gustatu izan zait beti, bestela, atzera geldituz gero...

## Asko irakurtzen al duzu?

Asko irakurtzen dut, ingelesez eta frantsesez ere bai, baina beti hiztegia aldamenean, zehatzago ulertzeko. Buruari lana eta gorputzari egurra eman behar zaio. Bestalde, gazte jendearrekin ibiltzea gustatzen zait.

## Euskararen etorkizuna, nola ikusten duzu?

Baikorra naiz. Ikastolako belaunaldia ondo prestatuta dator. Idazten badakite, itzultzen dute. Irakurlegoa lortzea gehiago kostatzen da, murrizten ari da. Irakurtzaletasuna gurasoen arazoa da, seme-alabak bidean jarri behar dituzte telebista bultzatu beharrean.



J.SAIZAR

## GERRA

«Gerra aurreko abertzale batzuk txaketa aldatu zuten eta beraiek izan ziren okerrenak»

## HEGO AMERIKA

«Beharrak minimoak dira Hego Amerikan: janaria, arropa... Hemen konplikatua gara»

## ZALETASUNAK

«Hizkuntzak, kirola, irakurtzea... Buruari lana eta gorputzari egurra eman behar zaio»

## Eta Hego Amerikaren etorkizuna?

Hegoamerikan Che Guevara asko behar dira —orain Bolivian bada bat, Evo Morales—, eta hala ere... Gobernuak AEBekin segituan harremanetan jartzen dira eta haren mendebate bizi dira. Ustelkeria handia dago eta kontrolatzea zaila da. Venezuelaren adibidez, Carlos Andres Perez eta diktadore horiek ezagutu ditut, lapurrak. Kartzela atera eta berriro ere presidente izan zen. Ni Chavezen aldekoa naiz: eskolak, unibertsitatea, Kubatik ekarritako medikuak jarri ditu. Euskaldunak dira han okerrenak. Laguntza handia behar du Hego Amerikak.

## Hainbeste leku ezagututa, zein da gehien gustatzen zai- zun herria?

Tolosa. Gure etxea bota zutenen, Donostiara joango nintzela esaten zidaten. Zertara? Hemen zirkulo batean dena daukat. Hondartzara joaten naiz, tren zirkulo batean dena daukat. Hondartzara joaten naiz, Tolosako auzora joaten naizela esaten dut.

AITOR VITORIA ▶ 'EUTSI!' FILMEKO ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

# «Umorearen eta gizarteak dituen arazoaren arteko nahasketa bat da»

Atzo estreinatu zuten Euskal Herriko zinemetan Gorritiberea zuzendariaren 'Eutsi!' euskarazko filma

ESTI EZEIZA

Atzo estreinatu zuten *Eutsi!* euskarazko filma Euskal Herriko zinema aretoetan. Honen inguruan mintzatu da Aitor Vitoria tolosarra, zuzendari laguntzaile lanetan aritu baita bera. Esperientzia handia du dagoeneko berak, zazpi filmetan hartu baitu parte dagoeneko.

**Zeintzuk dira *Eutsi!*ren osagai nagusiak?**

Umorearen eta gizartearen dituen arazoaren arteko nahasketa bat da.

**Gustura geratu al zarete emaitzarekin?**

Bai, ea orain zer gertatzen den, ea jendea gustatzen zaion. Hori baita garrantzitsuena, jendea gustatzea. Guk ahal dugun gutzia egin dugu eta nik uste dut ongi egin dugula.

**Erraza al da aurrekontu murritz horrekin, film on bat egitea?**

Moldatu egin beharra daukazu, ez dago besterik. Daukazu narekin ahal den onena egiten saiatzen zara.

**Gorritibereak zioen zaila dela komedia on bat egitea.**

Ez dakit komedia bat den, nahasketa bat da, komedia kostunbrista eta gizarte gaiak jorratzen dituen pelikulen arteko konbinaketa bat da. Hainbat genero uztartzen dira bertan. Beraz, denetik pixka bat du, eta hori da onena. Dena den, komedia tonu bat badu.

**Euskal Herrian zine gutxi egiten al da? Eta kontsumitu?**

Azken aldia gehiago egiten da, baina beti dago gehiago egitea. Hala, euskaraz eginda-



NOELIA LATABURU

ko film gutxi daudenez, jendea ez dago ohituta hauek ikusten. **Azken urteetan euskal zineak badu umorea lantzeko joera.**

Bai, jendeak hori baitu gustuko. Zaila da jendea barre egin araztea, baina aldi berean, gus-tagarria da barre egitea. Dena den hiru urtetan hiru film bakarrik egin dira, eta ezin da esan, euskaraz egiten diren pelikula guztiak barregurezkoak direnik.

**Baina hauek dira egin diren pelikula bakarrak.**

Bai, hori horrela da, *Aupa Etxebeste*, *Kutxidazu bidea* *Ixabel* eta *Eutsi!* luzemetraiak bakarrik egin dira, gainontzeako dokumentalak izan dira.

**10 urteetako lehortearen ondoren, hiru urtetan hiru film. Euskarazko zineari etorkizun hobe al dator?**

Hamar urte hauetan beste modu bateko filmak egin dira Euskal Herrian, baina ez euskaraz. Etorkizuna badu, baina

diru gehiago gastatu behar litzateke horretan. Dirua ematen dutenek, gehiago babestu behar lukete euskal zinea. Arrakasta izan badu, hemengo jendea gustatzen zaigu euskarazko zinea ikustea, baina, gehiago babestu behar da.

**Beraz, zoin da euskal zineak duen arazorik handiena?**

Proiektuak egon behar dira, eta hauei lagundu egin behar zaie. Hala ere, arazoa betikoa da: diru gutxi bideratzen dela kulturara. Eta zineak diru laguntzen beharra duenez, gehiago eman behar lituzkete.

**Zergatik joan behar du jendeak zineari, *Eutsi!* ikustera?**

Hemen eginda dagoelako, labeldun produktua delako, eta Euskal Herrian egindako zinea bultzatu behar delako. Bestetik, ongi dagoelako, film xume eta umila delako. Gainera lagundu dezake, esaterako, atzo bertan, euskaldun berriak ikusi nituen filma ikusten.

ALEGIA ▶

## Intxurrekoen bi partida etxean jokatuko dituzte

Gaur Intxurreko hiru taldeek jokatuko dute. Alde batetik, etxean, jubenilak Urnietaren kontra ariko dira 16:00etan, eta kadeteak, Orioren kontra 11:30ean. Bestetik, lurraldekoak Antzuolara joango dira 17:00etarako. Aurreko asteko emaitzak berriro ere oso onak izan dira, hiru partidak irabazi baitzituzten Intxurreko talde hauek. Nesken Altzakoen aurkakoa atzeratu egin zen.

EUSKARA ▶

## Korrikaren bertso bazkaritako sarrerak salgai

Zizurkilgo korrika batzordeak antolatutako ekitaldien baitan, bertso bazkaria izango da hilaren 24ean, igandea. Bertan ariko dira Ainhoa Agirreazaldegia eta Andoni Otamendi bertsolariak. Hona joan nahi duenak eskuragarri ditu txartelak Zizurkilgo Aurrera, Egarrri eta Goiko Zentro tabernetan. Bazkarira joateko eskuratu behar diren sarrerak 15 euro balio dute.

PILOTA ▶

## Zazpi-Itturri zapore gazi-gezarekin

Zazpi-Itturriko pilotariak zapore gazi-geza dute: Arabako Opeñan Leundak txapela lortu du Albaradorekin batera irabazita. Nagusietan Garmendiak beste txapela ekarri du Vicenterekin irabazi ondoren. Euskadiko Txapelketan albiste txarrak: Beloki-Zelaiak Euskadiko ligako finalerdian 22-16 galdu zuten. Ropon-Leunda jubenilek joaneko partidari irabazi zuten, baina bueltakoan 5 tantorekin galdu zuten. Baina Olaetxeak eta Arzelus kadeteek bueltakoa aise irabazi zuten. Beraz, bihar 11:00etan finala jolasten dute Elgetan.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## Gorrei eta beraien familiei erantzunak emateko aukera

E. Ezeiza ▶ Gaintzen, Tolosaldea eta Goierriko Gormutuen Elkartek antolatuta, psikologo eta Arans-giko koordinatzaile den Gillermo Maturanak hitzaldia eskaini zuen atzo Kultur Etxean. Bertan, gorrei eta gorren familiei zituzten dudak argitzen eta galderak erantzuten saiatu zen hizlaria. E. EZEIZA

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

hilberriak ▶

✝ Isabel Illarramendi Agirre  
Martxoaren 8an hil zen, 72 urte zituela

«Ez nau izutzen negu hurbilak  
uda betezko beroan,  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan»

Adiorik ez.

Ilobak: Josune eta Juan, Igor, Jon, Mikel eta Nerea, Nerea eta Aitor,  
Eider eta Gari, Harkaitz, Igor eta Idoia, Asier eta Amaia, Borja  
eta Silvia, Olaia, Leire, Eneiz eta Guille, Unai eta bilobak.

ZARAUZT, 2007ko martxoaren 10a

## ANOETA ▶ KULTUR ASTEA



## 30 zuhaixka landatu dituzte

**Erredakzioa** ▶ Anoetako Kultur Astearen baitan atzo Zuhaitz Eguna egin zuten. Ikastolako LH5 eta LH6 mailako ikasleek ur biltegiaren inguruan landatu dituzte 30 zuhaixka. Xarmak, urkiak eta astigarrak jarri dituzte. Eguraldiak ez du lagundu eta eginbeharrekoak azkar bukatu zituzten ikasleek. ▽

## VILLABONA ▶ GIZARTEA



## Bruesakoak Ikastolakoekin

**I. Garcia** ▶ Bruesa saskibaloi taldeko Esteban Martinez eta Diego Fajardo jokalariek Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleekin solasaldia izan zuten atzo Gurea aretoan. LH6tik hasi eta DBH4 arteko ikasleek hainbat galdera egin zizkieten Bruesa taldeari eta saskibaloiari buruz. I. GARCIA

**zizurkilien ezer ez ta festa!!!**

**ZIZURKILGO V. BLUES** JAIALDIA

**Stay Blues** 22:30orain  
AURRERA TABERNA

**Juan Bourbon**  
**Juan Scotch & Juan Beer**  
00:00orain EBARRI TABERNA

**Speak Low** 01:30orain  
ATZULUNGO TABERNA

**King Bee** 03:00orain AURRERA TABERNA

ATZULUNGO TABERNA EBARRI TABERNA  
AURRERA TABERNA ZENTROA  
IRIARTE ETXEA Doan

## IRURA ▶

## Zuhaitz Eguna egingo dute gaur Ibaigainen

Udalak antolatuta, Zuhaitz Eguna egingo dute gaur Ibaigainen. 16:30ean egin dute hitzordua zubi berrian edo ibai gaineko oinezkoen zubian. Zuhaitzak landatu eta konpondu ondoren haurrek merienda izango dute.

## VILLABONA ▶

## Aukeran taldearen 'Bideak' apirilaren 1ean

Gaurkorako Aukeran dantza taldeak *Bideak* emanaldia eman behar zuen Villabona-Olaederra kiroldegian. Ikuskizuna bertan behera gelditu da. Hala, apirilaren 1ean, igandea, izango da emanaldia, 20:00etan.

## ZIZURKIL ▶

## Teddy Martinez Europako onenekin lehia

Teddy Martinez Danena-Olaederrako pultsulari zizurkil-darrak parte hartuko du gaur Europako Batasunaren Txapelketan Espainiako selekzioarekin. A Coruñan izango da eta 85 kiloko mailan hartuko du parte.

## ZIZURKIL ▶ XIV. TXAPELA EGUNA

## Zentroari 'jantziko' diote gaur txapela

Berrogei urteetan «herri giroa sustatzen» jardun duelako erabaki dute eraikinari aurtengo oroigarria ematea

IMANOL GARCIA

Zizurkil Goiko Zentroari eman gote dute gaur gauean txapela, XVI. Txapela Egunean. Herrigiroa sustatzen duenari eman ohi zaio oroigarri hori. Aurten lehenengo aldiz, pertsona bati eman beharrean, leku bati emango zaio. Xabier Pellejero eta Naroa Geresta Zentroa taldeko kideek azaltzen dutenez, «berrogei urte hauetan herri giroa sustatu du eta aurten eraikinari berari ematea pentsatu dugu. Belaunaldi guztiak lotu ditu».

Izan ere, Zentroak, leku bezala, ez du iraungo asko. Arau subsidiario berriak eratzten ari dira eta proiektuetako bat Zizurkil Goiko plaza eta eliza bera eraberritzea da. Horrek Zentroa kentzea ekarriko luke. Horrela, Zentroa taldeko kideak harremanetan jarri dira Udalarekin, orain gutxi itxi den Iriarte taberna-jatetxearen kudeaketa izateko.

Pellejero eta Gerestak azaltzen dutenez, «taldea ados dago plazaren berrantolaketa-rekin». Zentroa eraikina itxiko zela aurreikustean, Iriarte erabiltzeko aukera aztertzen hasi ziren eta batzar batean erabaki zuten aurrera egitea. Iriarteren kudeaketa bere gain hartzeko, baina, Zentroa taldekoek elkarte bezala erregistratu behar dira.

Bere aldetik, Marian Lazkano alkateak azaldu duenez, «hainbat bilera egin ditugu eta bide onetik doa hitz egindakoa. Hitzarmen bat sinatu beharko genuke ideia gauzatzeko eta hitzarmen hori zehazten ari gara».



Orain urte batzuk egindako mus txapelketa. JOXIN AZKUE

## EGITARAUA ▶

XIV. Txapela Eguneko egitaraua gaur arratsaldean hasiko da.

**16:00.** Mus txapelketa Zentroan. Izen ematea 10 euro bikoteko. Sariak: 1. Txapelak eta arkumea; 2. Oilasko parea eta bi botila ardo; 3. Gazta; 4. Bi botila ardo.

**Afaria aurretik.** Txikiteo txapelduna eta txapela jaurtiketa lehiaketa egingo dituzte.

**21:00.** Txapeldunen afaria. Edizo guztiaren menu berdina izaten da: baratuzuri zopa, oilo zaharra saltsan eta mamia. Zentroan emango dute eta 15 euro balio ditu.

## Gazteen ekimenez

Txapela gaur *jantziko* badiote ere, Zentroari oraindik agur ofiziala egingo diote. Oraingoan errekonozimendu bat izango da. Orain 40 urte Zizurkilgo gazteek apaizarekin hitz egin eta Gotzaitegiaren baimena jaso ondoren, elizari itsatsita zegoen eskola eta azpiko ater-

pea moldatu egingo zuten. «Auzolanean egin zuten guztia», dio Pellejero.

100 gazte inguruk beraien ekintzetarako prestatu zuten. Bertan hasi ziren hainbat ikastaro eta ekintza bultzatzen: dantza taldea, bertsolaritza... Zentroatik bideratzen ziren ekintzak egun Iriarte kultur etxean egiten dira.



IMANOL ELOLA ▶ EHIZTARIA

# «Ehizatutakoak parte-hartzaileen artean banatzen ditugu»

Amasa Mendin egindako zonako 7. Ehiza Txiki Txapelketa zakurrarekin egin zen eta Gipuzkoakora joango da

**NEREA URBIZU**

Albizturko Beramendi elkartearen parte hartzen badu ere, Altzokoa da Imanol Elola (1979). Aurtengo zonako 7. Ehiza Txiki Txapelketako irabazlea izan da senior mailan, Amasa Mendin. Orain, Gipuzkoako Txapelketa-ira joango da: aurtengo 3 emakume irabazleak, 3 irabazle seniorrak, gehi Juantxo Iraola (jazko txapelduna), eta adinekoen mailako 3 lehenak.

**Noiztik hartzen duzu parte txapelketa honetan?**

Sei bat urtetan ibili naiz: lehenengoan ez nuen parte hartu.

**Ehiza mota hau zakurrarekin egiten da. Garrantzitsua orduan zakur ona izatea.**

Bai, oso garrantzitsua da. Erakutsi egin behar zaio ere. Erraza dela ematen du, baina ez da horrela. Ni behin eme batekin atera nintzen eta tiro hotsak entzun orduko izutu egin zen. Orain ar batekin nabil, Nahi-rekin, eta ondo moldatzen da.

**Modu berezi batean entrenatzen duzu?**

Ez. Ni mendira joaten naiz, besterik gabe: bizikletan pixka bat ibiltzen naiz, baina horretarako ere denbora behar da. Nahi, berriz, nirekin eramaten dut,

bai oilagorretara, galeperretara, edo dena delakora: ez dago eperratan espezializatua. Urnieta aldean, adibidez, zakurrak ehiza mota honetarako prestatzen dituzte, nik ez.

**Albizturren ez da egin aurten.** Ez. Jendea behar da horretarako, eta gutxi garenez, ez zen egin. Txapelketa irekia izanik, aurkeztu egin nintzen.

**Txapelketan 8 pieza akabatu zenituen.**

Bai: lau eper eta lau faisai ehitatu nituen. Zortea izan nuen: zakurra gelditzen zen eta espero ez nuen ere piezaren bat zebilen. 13:00etan hasi eta 17:00ak arte zen ehizatzeke epea. Ni 16:55ean edo, azaldu nintzen 8 piezekin: zama ere bazuten, ez pentsa. Bigarrenak eta hirugarrenak 7 pieza ekarri zituzten.

**Eperrak harrapatzea zailagoa omen da.**

Bai. Baina ia pena ematen didate hauek. Lotuta egon direnak dira, eta hiltzen ez ditugunak mendian geratzen dira. Hasieran oiloak bezala, geldi-geldi geratzen dira gaixoak, ez baitute maliziarik...

**Orduan ez joan ehizera, ez?**

Bai, baina afizioa hor dago!

**Eta penarik ez?**

Ez. Ez dut penarik sentitzen. Kabiak-eta egiten ari diren garraian pena eman dezake, baina bestela, egurra!

**Beti legala?**

Bai, bai, araudia betetzen beti. Nik ezkutuko ehiztaria izateko ez dut balio gainera; tontakeria gutxi horrekin, Guardia Zibilak ere ibiltzen dira bueltak.

**Arabatik 105 pieza ekarri zituzten otsailaren 24ko txapelketarako. Zer egiten da hiltzen ez dituzuenekin?**

Aurten denon artean 65 ehizatu ditugu: hauek parte-hartzaileen artean banatu egiten dira, eta bakoitzak nahi duena egiten du gero: guk jan egiten ditugu, noski. Beste guztiak, mendian geratu dira.

**Zer suposatzen du sari honek?**

Poza ematen du. Urtero ibiltzen naiz, behin Gipuzkoakoan ibili nintzen, eta ilusioa egiten du. Txorakeria bat izango da, baina sariak ilusioa egin zidan, eta txapela ere oso polita da.

**Zer ematen dizu zuri ehizak?** Neronek jakingo banu... Hori galdetzen diot neure buruari ere. Aita ere ehiztaria da, genetika kontua izango da.

**Beste hainbat gauza ehizatzen dituzu ere.**

Bai: oilagorrak, galeperrek udan, basurdeak, usok udazkenean... Oilagorrek eta galeperrek basatiagoak dira, ez dakizu non dauden, bilatu egin behar dituzu... Azken batean, txapelketa honek, nolabait esatearren, ez du grazi handirik zentzu horretan.

**Gipuzkoako Txapelketa urriaren 7an izango da. Zer gertatuko da?**

Zaila izango da Zanbranan irabaztea: hara doan jendea akatzera doa, irabaztea. Ez zait iruditzen irabaziko dudarik: ez noa horretara ere, besterik gabe.



HITZA

## berriaren eskutik



Neurria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

36€

Egin eskaria amaitu baino lehen  
**943 304 345**  
edo harpidedunek  
[www.berria.info](http://www.berria.info)

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

OHARRA: biltegiakoak bukatu arteko eskaintza

**SAILKAPENA ▶**

**EHIZA TXIKIA**

**Emakumeak.**

- Izen abizenak Piezak
- Modes Iraola Bi eper, bi faisai
  - Elena Vicente Faisai bat
  - Mari Jose Carretero Faisai bat

**Seniorrak.**

- Izen abizenak Piezak
- Imanol Elola 4 eper, 4 faisai
  - Iker Urruzola 2 eper, 5 faisai
  - Juan Karlos Goñi Eper 1, 6 faisai

**Adinekoak.**

- Izen abizenak Piezak
- Pablo Lasa Eper bat, faisai bat
  - Jose Antonio Iguaran Bi faisai
  - Martin Hernandez Bi faisai

LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

# «Tolosako Udalak albo batera utzi ditu hemen bere auzoak»

Goñik, Leaburu-Txaramako alkateak, errepideen inguruan kritika «zorrotza» egin die Diputazio eta Tolosako alkateari



Asteazkenean, Txaramarako bidean haizeak botatako zuhaitzak zeresanak ekarri ditu. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Aste honetako eguraldiak ez-behar ugari sortu ditu eskualdeetan. Azpimagarriena, Amartzitik Leaburu-Txaramarako errepidean haizeak eragin zezakeena izan zitekeen. «2.000-3.000 kilo» inguruko Makala tronkotik hautsi eta errepide gainera erori baitzen alderik alde haize boladen ondorioz. Zuhaitza eroritako gunea, Tolosaren barnean dago. Errepidearen eskumena berriz, diputazioak dauka.

Leaburu-Txaramako alkate Jose Kruz Goñik jakinarazi duenez, «ez da lehen aldia tarte honen egoera kaxkarra salatzen duguna. Urteak daramatzagu borrokan Tolosako Udalarekin eta ez dute ezer egiten. Lizartza eta Txaramako biztanleak beldurrez pasatzen dira bertatik haizea eta haizerik

gabe ere. Zuhaitz horiek gaizki egoteaz gain, gaixorik daude, barnea usteldurik dute». Aspaldi erabakia hartuta egon behar zuela esan ondoren, ea «ezbeharren baten zain» dauden Diputazioa eta Tolosako Udala galdetzen zuen Jose Kruz Goñik. «Edozein desgrazi pasa daiteke. Jendea eta haurrak hortik ibiltzen dira. Urteak goaz konponbidea eskatzen, Diputazioan salaketak jarriak ditugu, baina ez digute kasu ziptzik egiten».

## Leaburu-Txaramak eskaera

Leaburu alkate bezala, Tolosako alkateari Goñik «kritika zorrotza» egiten dio. «Beraien ardurak ia» hartzeko. «Bere auzoak abandonaturik dauzka. Amaroze eta Txaramako papele-erako tasak hartu dituzte baina ez dute zentimorik inbertitu az-

ken 30 urtetan. Tolosako Udalak erabateko ezgaitasuna erakutsi du urte luzeetan. Desastre hutsa».

Diputazioaren inguruan berriz, Leaburu-Txaramako alkateak, «erabakiak alden azkarrera hartzeko» eskaria luzatu die. «Bakarren bati desgrazien bat pasatzeko zain egon gabe, ekin beharra dago».

## Diputazioarekin bilera

Antxon Izagirre alkate zegoenean, proiektua egiten hasi omen ziren, «%70 diputazioak jartzea onartu omen zuten», baina ondoren ez aurrera eta ez atzera geratu ziren. «Tolosako Udalak ez digu informaziorik pasatzen, eta zeharka enteratu gera Diputazioak aurrekontu bat onartu duela. Kostata bada ere, urrango astean elkartuko naiz beraiekin».

IBARRA ▶ OMENALDIA



Berrogeita hamar lagun inguru elkartu ziren omenaldian. A. IMAZ

## Xebas-i omenaldia egin zioten herritarrek

Omenaldi amaieran Xebas eta Josetxoren oroimenez monolito bat jarri zuten Aranen

A. IMAZ

«Hogeita hamar urte ondoren / gaur ere egun goibela / atera zaigu gogoraraziz / Xebas erahil zutela / Nikolas ere eraman zigun / enboskadaren krudela / Guardia Zibilek tirokatua / bai balekite bezela / herria maite duenak indar / berezi bat baduela».

Xebasen omenezko ekitaldian kantatutako bertsoak horrela zioen. Ostegunean Sebastian Goikoetxea Xebas ibartarrari herritarrek omenaldia egin zioten. 19:45ean hilerrian elkartu ziren senide, lagun eta herritarrak. Josetxo eta Xebas-i lore eskaintza egin ondoren, Eusko Gudariak abestu zuten Guardia Zibilak erahil zituen ibartarren hilobiaren aurrean. Ondoren, Arane iturrira jaitsi ziren eta bertan jarraitu zuten omenaldiarekin.

Bertsolariak bi bertso abestu zituen, ondoren agurra dantzatu zitzaion Josetxo eta Xebas-en sendiei. Hitzal-

di labur bat ere entzun zuten bertara gerturatu zirenek. Azkenik, bi ibartarren omenezko monolito bat eta bi zuhaitz landatu berriren oinean loreak utzi ziren.

## «Xebas, herri gizona»

Lagunei Xebas-en inguruan galdegin ezkeru, «herrian lan asko egiten zuten» pertsona zela erantzuten dute. Euskaldun berria zen, haurtzaroan ez baitzuen ikasi. 15 urterekin ikasketak utzi eta aroztegi batean hasi zen lanean. Deportiba elkarteko partaide eta ikastolen aldeko mugimendua «erabat» barneratua zuen. Gaur egungo Ibarroko ikastolako sortzaileetako bat izan zen.

«Soldaduskatik itzuleran jarri serioagoaz» aurkitu zuten ingurukoek. «Politika kontuei jarraipen handiagoa» egiten hasi zen, eta komunikabideek jokatzaren zuten «garrantzia ikusirik», *La Voz de Españaren* aurkako boikota egiten hasi zen antolatzen zituen kirol eta kultur ekitaldietan. Ondoren, 1975ean ETAn sartu eta 1977an erahil zuten Guardia Zibilek kontrol batean.



Arane iturririko monolitoa. A. IMAZ

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Garbitzaileak.** Mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritza langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telef.: 943 29 82 32.

### Suhiltzaileak.

Basozainak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. Telefonoa: 943 32 66 63.

### Hezkuntza.

Eusko Jaurilaritza. Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara,

musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitetz: 943 32 66 63.

### Sukaldaria eta zerbitzaria.

Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. Deitu honako telefono zenbakira: 615 78 90 06.

### Tabernaria.

Neska euskalduna behar da tabernarako. Asteleheneetik ostiralera, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandea jai. Deitu 650 48 79 34.

### Zaintzailea.

Emakume bat behar da haur bat zaindu eta etxeko

lanak egiteko. Goizez. Deitu 943 69 82 73 telefono zenbakira.

### SALGAI

**Furgoneta.** Volkswagen Transporterra salgai. Kontakturako telefonoak: 943 65 57 00 eta 685 73 68 81.


**Zakurkumea.** Epagneul Breton zakurkumea salgai. Ehizean erakutsien hasita dago. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 689 89 24 34.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

### Gerra Zibila 1936-2006.

Gerra Zibila hasi zela 70. urte igaro dira. Gerra hau eskualdeetako askok jasan behar izan zuten. Lekuko zuzenak izan ziren Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrei, Joxemi Saizarrek egindako elkarrizketak aurki daitezke goian azaltzen den webgunean. Sar zaitetz eta irakurri haien bizipenak.

## LEITZA ▶ KULTURA



Ama naturaren borroka erabat galduta ez dagoela ere azaldu nahi du Zufiaurrek bere lanean. HITZA

**Exkixu-lumak.** Konposizio honetan Zufiaurrek Exkixu-lumak erabili ditu eta alegoria hori adierazteko, hauei ateratako argazkiak txikitu ondoren, esanahi estetiko bat eman die. HITZA**Udazkena.** Naturaren txikizio aditzera emateko bide horretan hainbat elementu erabili ditu Zufiaurrek. Kasu honetan, Eratsunen ateratako udazkeneko paisai bat erabili du. HITZA

# Naturaren txikizioa, artearen ikuspuntutik

Pako Zufiaurrek Torrean jarritako erakusketa gaur egun «naturak jasaten duen txikizioaren inguruko alegoria bat da»

NAIARA GARZIA

Torrea tabernan ikusgai dagoen erakusketa ez da Pako Zufiaurrek (Araia, 1966) antolatzen duen lehenengoa, azkeneko urteetan 10 bat egin baititu Iruñean, Gasteizen, Donostian... Torrera hurbiltzen den orok, ohiko argazkiak eta hain ohikoak ez direnak ikusi ahaliko ditu, baina denek esanahi bera dute: naturaren txikizioa.

Pako Zufiaurrek azaldu duen bezala, «erakusketa naturaren txikizioaren alegoria bat da. Guk natura txikitzen dugu, eta nik naturari ateratako argazkiak txikitzen ditut».

Txikizioak txikizio, ama naturaren borroka erabat galduta ez dagoela ere azaldu nahi du Zufiaurrek bere lanean. «Argazkiak hautsi ondoren, ukitu estetiko bat ematen diet, argazkiak hautsita ere bere balioa

eta garrantzia badutela adierazteko».

Erakusketan bi argazki mota daude: konposizioak (orain aipatutakoak) eta erretratu psikologikoak. «Azken hauek paisaia batean murgildutako giza-karen siluetak dira». Aurrekoak naturaren barrutik sortzen diren bezala, hauek kanpotik datoz, naturaren txikizioaren aurrean gizakiak dituen jarre-ak azaldu nahi baitituzte.

## LEITZA ▶ KIROLA

## Pilotalekuan, Nafar Jokoen hainbat partida

Aurrera Pilota Eskolako pilotariak ere Iruñean eta Zubirin jokatuko dute

N. GARZIA

Asteburu honetan Nafar Jokoen barruan, norgehiagoka ugari jokatuko dituzte Aurrera Pilota Eskolako pilotariak, bai herrian, bai kanpoan.

Asteburuko partidak atzo arratsaldean hasi ziren, 18:30ean, haur-kategorian jokatutako partida batekin. Bertan Joxerra Aldaregia eta Xabier Jaunarena Irurtzun Aren aurka lehiatu ziren.

Gaur, berriz, 10:00etan hasita eta goiz osoan zehar pilotatutako jokatuko dituzte Amazabal Pilotalekuan. Ander Escudero eta Mikel Eraso Irurtzun Bren aurka jokatuko dute (benjaminen 2. maila), Ibai Azurmendi eta Julen Goikoetxeak Zugarralde Fren

aurka (hasiberrien 3. maila), Iker Sagastibeltza eta Josu Zabaletak Zugarralde Jren aurka (hasiberrien 3. maila), Ibai Gil eta Mikel Sagastibeltza Lasartek Lizarra Aren aurka (hasiberrien 1. maila), Mikel Ontsallo eta Xabier Erasok Esteribar-en aurka (haur-kategoria, 2. maila), eta Mikel Iriarte eta Aimar Lansalotek Paz Zigan-daren aurka (22 urtetik beherakoak).

Amazabal pilotalekuan ezezik, herriko pilotariak ere kanpoan ariko dira gaur. Anartz Olan eta Mikel Sagastibeltza Egues Oberena Aren aurka lehiatuko dira Iruñean, hasiberrien 1. mailan eta Oinatz Mariezkurrena eta Iñaki Saralegi Esteribar Bren aurka ariko dira, Zubirin.

## LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

## Nafarroako Txapelketa gaur, Berriozarren

Azken finalerdia izanen da eta Migel Mari Elosegik Luze leitzarrak parte hartuko du

N. GARZIA

Gaur, Berriozarren ospatuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoan Migel Mari Elosegik Luze leitzarrak parte hartuko du, beste host lagunekin batera.

Etxarri-Aranatz eta Goizuetako saioen ondoren, Berriozarko gaurko finalurrekoaren Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo zati honi amaiera emango zaio,

izan ere, hurrengo hitzordua Elizondon izanen da, finalean.

Migel Mari Elosegirekin batera Xabier Silveira, Erika Lagoma, Oskar Estanga, Aritz Saragueta eta Alazne Untxalo ariko dira. Besteak beste, ondorengo ariketa hauek egin beharko dituzte: zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso, zortziko txikian binaka ofizioka hiruna bertso eta hamarreko txikian binaka ofizioka hiruna bertso.

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta Igarrondo eta lurren itxia.  
**Salgai (Tolosa)**. Pisu Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).  
**Salgai (Tolosa)**. Pisu "La Estrella" eraikinean.  
**Salgai (Tolosa)**. Lurre auzoan, Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal txikia. Oso modu onean.  
**Salgai (Tolosa)**. Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.  
**Salgai**. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa)**. Garajeak. Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK  
Jogurta  
Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Tolosaldea.** 18/98 *auziko* inputatuei babesa eman eta epaiketa bertan behera gelditzeko exijitzeko manifestazioa gaur 17:00etan Bilbon; Aiztondo bailaratik autobusa antolatuta dute: 15:00etan Asteasuko plazatik eta 15:15ean Villabonako kiroldegitik. Izen-ematea 615 708732 eta 638 051051 zenbakietan eta Iratzer tabernan.

**Orendain.** Herri batzarra egingo dute udaletxean 16:30etik aurrera, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela-eta, osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkeztu eta herritar guztien artean lehen tasunak erabakitzeko.

**Tolosa.** Lisabõ eta Stepi Selektak muiska taldeak izango dira Bonberenean 22:30ean.

**Villabona.** EHNA tramitatzeko aukera izango da, hileko bigarren larunbatero bezala. 11:00etatik 13:00etara Musika Etxean (Kultur Etxe ohia). Interesatuak hiru argazki, errolda agiria eta hamabost euro aurkeztu beharko dituzte.

**Zizurkil.** 5. Blues Jaialdia: 22:30ean Speak Low Aurrera tabernan, 12:00etan Juan Bourbon eta Juan Scotch & Juan Beer Egarri tabernan; 01:30ean Stay Blues Abulondo tabernan eta 03:00etan King Bee Aurrera tabernan.

**Zizurkil.** AHTren aurkako mendi marxa tren geltokitik 09:00etan. Urkamendirantz abiatuko dira lehenik. Handik Belkoainera eta eta ondoren Andoaingo Gaztebtxean salda beroa. Gauean Gaztebtxean lotarako lekua atonduko dute. Igandean 09:00etan elkartuko dira Andoaingo Goiko Plazan. Hernanin amaituko dute ibilbidea.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Herria hobeto ezagutzeko

**TOLOSA ▶** 'Tolosako leku izenen mapa' izeneko liburua osatu dute Juan Inazio Elosegi eta Irma Goikoetxeak, leku izenak eguneratuz bertan



Agerraldian, ezker-eskuin: Tomas Mendizabal, Iñaki Azaldegi, Irma Goikoetxea, Onintza Lasa, Juan Inazio Elosegi eta Mikel Gorrotxategi. E.E

**ERREDAKZIOA**

**T**olosaren «errealitatea gerturatzeko balio duen eta herriaren historia ulertzen laguntzeko balioko duen» liburua osatu dute Juan Inazio Elosegi eta Irma Goikoetxeak. *Tolosako Jeku izenak* izenburupean, 1.000 toki nahiz baserriren izenak eta argazkiak bildu dituzte liburuskian. Herenegun aurkeztu zuten jendaurrean liburua bi egileek. Bertan azaldu zituzten hau gauzatzeko egindako lanaren nondik norakoak. 2000. urtean

hasi zen lan honetan Juan Inazio Elosegi Udalaren enkarguz. Euskaltzaindiak eta euskara zerbitzukoek aholkatuta, lehendabizi, toponimia historikoa bildu eta aztertu zuen Elosegi. Hau da, lehendik idatzita zegoena. Eta ondoren, jendearen ahotan zegoenarekin alde batera hasi zen. Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko adituak aurkezpenean agertu zuen bezala, «Euskaltzaindiak, ikerketan laguntzeaz gain, izenak normalizatzen egin du lan. Izenen bilketa egiteaz gain, ga-

rrantzitsua baita hauek herriari jakitera ematea, eta gure ondare den toponimia babestea». Hori dela eta, egun jendearen ahotan dabilzan zenbait izen onartu beharrean, «egokiagoak» diren beste batzuk egin dituzte «ofizial», arrazoiz ezberdintzatik. Lan horretan lagundu du Euskaltzaindiak eta Udaleko euskara batzordeak. Beraz, Elosegiren bi urtetako datu bilketaren ondoren, Irma Goikoetxeak, Euskal Filologian lizentziatuak, arautzeari ekin zion. Berak azaldu zuen bezala, «egungo auzoak sailkatzeko

orduan, garai bateko auzo eremuak errespetatu ditugu». Toponimoez gain, Tolosako pasarte ugari ere ageri dira liburuan. Dena den, egilearen esanetan, «asko arakatu arren, aztertu gabe ere toki ugari gerturatu ziren, zaila baita hauek denak arakatzeko. Hala ere, zurrerik, hemendik aurrera ere ekarpen ugari izango dira». Interesatuak gaurtik aurrera eskuratu ahal izango dute liburua nahiz mapa. Hau, salgai izango baita Eukara zerbitzuko bulegoan edo Elkar liburu-dendan, 15 euroren truke.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Haritz Arana Garmendia (Tolosa), 4. urtebetetzean 4 muxu handi maite zaitugunen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...